



<b>Izenburua</b>	EAEko euskararen belaunez belauneko transmisioa
<b>Egilea</b>	Pablo Sagarduy Lizuain
<b>Data</b>	2009/05/07

# aurkibidea

---

aurkibidea.....	2
1. Ikerketaren metodologia eta helburua.....	3
2. Euskararen belaunez belauneko transmisioa.....	3
2.1. Seme-alaben lehen hizkuntza, lurraldearen arabera.....	3
2.2. Udalen araberako analisisa eta banaketa.....	3
2.3. Seme-alaben lehen hizkuntza adinaren eta sexuaren arabera.....	4
2.4. Seme-alaben lehen hizkuntza eta gurasoen adina.....	6
2.5. Seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera.....	6
2.6. Seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen tipologiaren arabera .....	7
2.7. Seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen adinaren eta tipologiaren arabera.....	11
3. Hizkuntza bilakaera.....	15
4. Euskararen erabilera .....	16

## 1. Ikerketaren metodologia eta helburua

Euskararen etorkizuna bermatzeko, belaunez belauneko familia bidezko transmisioa oinarrizko urratsa da. Hori horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn) guraso biek bizi diren 2 eta 29 urte bitarteko seme-alabek<sup>1</sup> gurasoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruzko azterketa egin dugu Beraz, analisiaren oinarrizko unitateak seme-alabak dira.

## 2. Euskararen belaunez belauneko transmisioa

### 2.1. Seme-alaben lehen hizkuntza, lurraldearen arabera

2001eko Zentsuko datuen arabera (1. taula) 30 urtetik beherako seme-alaba gehienek (%72,6) lehen hizkuntza<sup>2</sup> gaztelania<sup>3</sup> dute, %20k euskara baino ez, eta %8k euskara eta gaztelania.

Lurraldearen arabera banaketa aztertzen badugu, balioak oso desberdinak direla ikusiko dugu. Izan ere, Araban 30 urtetik beherako seme-alaben %3k baino zertxobait gehiagok du lehen hizkuntza euskara, Bizkaian ehuneko hori %12,5koa da eta Gipuzkoan ia %40koa.

1. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntzaren banaketa. EAE, 2001

	2-29 urte bitarteko seme-alabak			
	Guztira	Lehen hizkuntza (%)		
		Euskara	Biak	Gaztelania
<b>EAE</b>	<b>462.593</b>	19,7	7,7	72,6
<b>Araba</b>	<b>65.157</b>	3,4	4,7	91,9
<b>Bizkaia</b>	<b>249.962</b>	12,5	6,6	80,9
<b>Gipuzkoa</b>	<b>147.474</b>	39,0	10,8	50,2

Iturria: EUSTAT

### 2.2. Udalen arabera analisia eta banaketa

Eremu geografikoari dagokionez (1. irudia), Bizkaiko ekialde erdian eta Gipuzkoako zati handi batean, 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben erdiak baino gehiagok euskara<sup>4</sup> dute lehen hizkuntza. Baina gune

<sup>1</sup> Ikerketa egiteko datuak 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan jasotako informaziotik atera dira


<sup>2</sup> "Lehen hizkuntza" edo "ama-hizkuntza" izeneko aldagaiak seme-alabek, normalean gurasoengandik, bizitzako lehen 3 urteetan ikasten duten hizkuntza adierazten du.

<sup>3</sup> Lehen hizkuntza gaztelania balioaren barruan gaztelania bera eta euskara ez diren gainerako hizkuntzak sartu ditugu.

<sup>4</sup> Hau da, euskara lehen hizkuntza dutenak, bakarrik nahiz gaztelaniarekin batera.

horietan ere ehunekoak behera egiten du nabarmen gune horien mugan dauden udalerrietan eta industria- zein hiri-ardatz nagusietan: Ibaizabal Goienean, Deba Bailaran eta Beasain-Tolosa ardatzean esaterako.

**1. irudia. Lehen hizkuntza euskara (euskara edo euskara eta gaztelania) duten 2-29 urte bitarteko seme-alaben ehunekoa, udalerrika. EAE, 2001**



Iturria: EUSTAT

### 2.3. Serme-alaben lehen hizkuntza adinaren eta sexuaren arabera

Zenbaki absolutuetan (2. taula) seme-alaben multzo handienak 15 urtetik gorakoenak dira, bereziki 20 eta 24 urte bitartekoena, seme-alaba guztien ia laurdena biltzen baitu (%24,6). Kopuruak nabarmen egiten du behera adinak behera egin ahala. Ehuneko txikiena adin-talde gazteenak du (%8,4).

Ikus dezakegunez, adin-talde bakoitzean euskara lehen hizkuntza izatea, bakarka nahiz gaztelaniarekin batera, arruntagoa da adinean behera egin ahala. Ehunekoak nabarmen aldatzen dira banaketa adin-taldean arabera aztertzean. Hala, lehen hizkuntza euskara hutsik duten seme-alaben ehunekoa zaharrenean adin-taldean %17,6 da eta gazteenen taldean, ordea, %23,9.

Bestalde, lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dituztenen adin-taldea ez da %5era iristen 25 eta 29 urte bitarteko seme-alaben artean eta, aldiz, balio hori hiru aldiz handiagoa (%14,5) da 2 eta 4 urtekoen artean. Hazkunde horren ondorioz, lehen hizkuntza gaztelania duten seme-alaben kopurua nabarmen murrizten da: %75etik gorakoa (%77,7) izatetik %60 pasatxora (%61,6) jaisten baita.

**2. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben banaketa lehen hizkuntzaren arabera, adin-taldeka. EAE, 2001**


Adin-taldeak	GUZTIRA	Euskara (%)	Biak (%)	Gaztelania (%)
25-29	84.152	17,6	4,6	77,7
20-24	113.899	17,9	5,5	76,6
15-19	90.199	18,8	6,9	74,4
10-14	71.453	20,7	8,7	70,6
05-09	64.125	23,0	11,5	65,5
02-04	38.765	23,9	14,5	61,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>462.593</b>	<b>19,7</b>	<b>7,7</b>	<b>72,6</b>

Iturria: EUSTAT

Piramidea 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben adinaren eta sexuaren arabera lantzean (2. irudia), zenbait diferentzia ikus ditzakegu zenbaki absolutuetan, gizonetzkoen kopurua emakumeena baino handiagoa delako. Baina ehunekoan balioei erreparatu, ikusten da adin-talde desberdinetan sexuak ez duela aldaketa adierazgarrikerik eragiten lehen hizkuntzaren banaketan, lehen hizkuntzaren ehunekoa bi sexuetan antzekoa delako.

Ohikoa den bezala, adin-talde gazteetan<sup>5</sup> gizonak emakumeak baino zertxobait gehiago dira<sup>6</sup>. Seme-alabak lehen hizkuntzaren arabera banatzen baditugu, ikusten da ehuneko horri eusten diotela talde bakoitzean. Horrek adierazten du seme-alaben sexuak ez duela eraginik hizkuntzaren transmisio-prozesuan.

**2. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, sexuaren eta adinaren arabera. EAE, 2001**



Iturria: EUSTAT

<sup>5</sup> EAEko biztanleria osoan gizonetzkoen portzentajea emakumeena baino pixka bat handiagoa da 30-34 adin-tartera arte, eta 35 eta 39 urteen artean portzentajeak parekatu egiten dira. 60 urtetik gora emakumeen portzentajeak hazkunde handia du.

<sup>6</sup> EAEko biztanleria osoan gizonetzkoen portzentajea emakumeena baino pixka bat handiagoa da 30-34 adin-tartera arte, eta 35 eta 39 urteen artean portzentajeak parekatu egiten dira. 60 urtetik gora emakumeen portzentajeak hazkunde handia du.

Bestalde, gogoan izan behar da lehen hizkuntza "...haurtzaroan 3 urtera arte ikasten dena dela...".<sup>7</sup> Kontzeptu hau, orain arte, inplizituki lotu izan zaio familian ikasitako hizkuntzari. Gaur egun, ordea, haurrak gero eta lehenago eskolatzen direnez umeak, 3 urte bete aurretik, etxekoa ez den beste hizkuntza bat ikasteko aukera du eta, definizio horren arabera, hori ere lehen hizkuntzat hartu beharko da. Oro har horrek ez du esan nahi ikasitako hizkuntza berriak "familiako" hizkuntza ordeztu duenik, bi lehen hizkuntza dituzten haurrak gero eta gehiago direla baizik. EAEk du estatuko eskolatzeta-tasa handiena 0 eta 2 urte arteko umeentzat eta ia hirukoiztu egiten du estatuko batez bestekoa.

## 2.4.- Seme-alaben lehen hizkuntza eta gurasoen adina.

Gurasoak hiru adin-taldetan banatu dira: 30 urtetik beherakoak, 30 eta 44 urte bitartekoak eta 45 urte edo gehiagokoak.

Seme-alaben %97,7 hiru bikote-motatik baino ez datoz; hiruretan bikotekideen adina 30 urtetik gorakoa da (3. taula), eta bi kideak adin-talde berekoak dira edo ama aita baino zertxobait gazteagoa. Gainerako talde guztiek hondar-balioak dituzte.

Gurasoen adinak badu seme-alaben lehen hizkuntzan nolabaiteko eragina. Izan ere, bikotekidea zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta txikiagoa da lehen hizkuntza gaztelania soilik duten seme-alaben ehunekoa eta handiagoa lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania dutenena.

### 3. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, gurasoen adinaren arabera. EAE, 2001

Gurasoen adina	Guztira	Euskara	Biak	Euskara+ Biak	Gaztelania
Biak >45	249.620	18,89	5,66	24,55	75,45
Aita>45; Ama 30-44	53.985	21,44	7,67	29,11	70,88
Biak 30-44	147.970	20,72	10,97	31,69	68,31
Gainerakoak	11.018	14,75	9,11	23,86	76,14
<b>Guztira</b>	<b>462.593</b>	<b>19,67</b>	<b>7,67</b>	<b>27,34</b>	<b>72,65</b>

Iturria: EUSTAT

## 2.5.- Seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera

Hizkuntzaren belaunaldien arteko transmisio-prozesutzat zentzu hertsian ulertu ohi dena aztertzeari ekingo diogu orain. Kontzeptu horrek zuzenean lotzen du gurasoen hizkuntza-gaitasuna seme-alaben lehen hizkuntzarekin, eta hartara, aldagai bi horien artean dagoen erlazio estuaren adierazgarri da (3. irudia eta 4. taula).

Bi gurasoak elebidunak direnean, seme-alaben %95en lehen hizkuntza euskara da (%88k euskara soilik eta %7k gaztelaniarekin batera). Transmisioaren ehunekoa nabarmen aldatzen da gurasoetako bat baino ez denean elebiduna. Orduan lehen hizkuntza euskara duten seme-alabak %65era jaisten dira (%35ek euskara soilik eta %30ek gaztelaniarekin batera).

<sup>7</sup> EUSTATEk ezarritako lehen hizkuntzaren definizioaren laburpena.


Gurasoek euskaraz ondo hitz egiten ez dutenean<sup>8</sup>, seme-alaben %95ek gaztelania soilik jasotzen du, %3,5ek gaztelania euskararekin batera eta %2 baino gutxiago dira euskara soilik jasotzen dutenak. Hala ere, esan beharra dago ehuneko hori horren txikia izan arren, euskara ez dakiten gurasoen seme-alaben multzoa hain handia denez (seme-alaba guztien ia %70 hain zuzen), lehen hizkuntza euskara dutenen kopurua handi samarra dela, 17.133 lagunekoa, alegia.

**4. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza (LH), gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2001**

Gurasoek euskaraz hitz egiten dute	Guztira	LH Euskara	LH Euskara eta Gaztelania	LH Gaztelania
Biek ondo	72.359	88,0	6,9	5,1
Batek ondo	62.442	35,1	30,1	34,8
Batek ere ez	327.792	1,7	3,5	94,8

Iturria: EUSTAT

**3. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza (LH), gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2001 (%)**



Iturria: EUSTAT

## 2.6.- Seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen tipologiaren arabera

Orain arte euskararen hizkuntza-gaitasuna zentzu hertsian hartu dugu aintzat, baina hizkuntzaren transmisio-prozesuari begira garrantzitsua da hizkuntza-gaitasun erlatiboa ere kontuan hartzea. Kontzeptu horrek, euskaraz hitz egiteko gaitasunaz edo gaitasun-ezaz gain, gaztelania baino hobeto edo errazago hitz egiteko trebezia ere adierazten du. Horrek berekin dakar, praktikan, etxean normalean hitz egiten den hizkuntza bata ala bestea (edo biak) izatea eta, ondorioz, seme-alabek ikasiko duten hizkuntza ere horixe bera izatea.

Pertsonaren lehen hizkuntza erabakigarria da hizkuntza-gaitasun erlatibo bat ala beste izateko. Horrela, bada, lehen hizkuntza euskara soilik duten pertsonen hizkuntza-gaitasun erlatiboa dezentez handiagoa izan ohi dute lehen hizkuntza gaztelania soilik dutenek baino. Bi multzoen erdian daude,

<sup>8</sup> Horrek ez du esan nahi bat ere ez dakitenik. Litekeena da galera partziala izatea edo une horretan ikasten aritzea.

baina hurbilago lehenengotik bigarrenetik baino, lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dituzten pertsonak.

Fenomeno hori aztertzeko, lehen hizkuntza (LH) eta hizkuntza-gaitasuna gurutzatu ditugu, eta hortik sortutako Hizkuntza Bilakaeraren Indizearen (BILA) emaitzak erabili.

Horrela, zazpi kategoria definitu dira, hala nola:

1. **Euskaldun zaharrak:** LH euskara eta euskaraz ondo hitz egiten dute
2. **Jatorrizko elebidunak:** LH biak eta euskaraz ondo hitz egiten dute
3. **Euskaldun berriak:** LH gaztelania eta euskaraz ondo hitz egiten dute
4. **Partzialki euskaldun berriak:** LH gaztelania eta euskaraz nekez hitz egiten dute
5. **Partzialki erdaldunduak:** LH euskara edo biak eta euskaraz nekez hitz egiten dute
6. **Gutziz erdaldunduak:** LH euskara edo biak eta euskaraz ez dute batere hitz egiten
7. **Erdaldun elebakarrak:** LH gaztelania eta euskaraz ez dute batere hitz egiten

Ondoren, aitaren eta amaren BILA indizea kontuan hartuta, bikoteen tipologia bat ezarri da: “**D**”, “**B+**”, “**B**”, “**A+**”, “**A**” eta “**X**”.

D, B+ eta B motako gurasoei dagokienez, guraso biek ondo hitz egiten dute euskaraz. D motakoan biak euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak dira. B+ motakoan, aldiz, gurasoetako bat euskaldun zaharra edo jatorrizko elebiduna da eta bestea euskaldun berria. B motakoen kasuan bi gurasoak euskaldun berriak dira.

A+ eta A motako gurasoei dagokienez, bikotekideetako batek ondo hitz egiten du. A+ motako gurasoetako baten lehen hizkuntza euskara da edo euskara eta gaztelania eta A motako gurasoarena gaztelania. Beste bikotekideak edo ez du euskaraz hitz egiten edo zailtasunez hitz egiten du, lehen hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.

Azkenik, X motako gurasoei dagokienez, batek ere ez du ondo egiten euskaraz.

Aipagarria da seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen tipologiaren arabera aztertzean lortutako emaitzak (4. irudia eta 5. taula) eta gurasoen hizkuntza-gaitasuna bakarrik aintzat hartuta egindakoak (3. irudia) desberdinak direla.

Hasteko, hizkuntza-gaitasuna baino ez da kontuan hartuko. Kasu horretan, bi gurasoek euskaraz ondo hitz egiten badute, lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben ehunekoa %95ekoa da (%88k bakarrik eta %7k gaztelaniarekin batera).

Hizkuntza-gaitasuna ez ezik lehen hizkuntza ere kontuan hartuko da oraingoan. Hortaz, guraso biek ondo hitz egiteaz gain, lehen hizkuntza euskara badute<sup>9</sup> (D motako bikoteak), lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben ehunekoa %98,6ra igotzen da (%93,9k euskara soilik eta %4,7k gaztelaniarekin batera). Baina, bikotekideetako batek lehen hizkuntza euskara ez badu (B+), biek euskaraz ondo hitz egin arren, euskara lehen hizkuntza duten seme-alaben ehunekoa %92,4ra jaisten da.

Aldea ez da handia oro har hartuta, baina bai euskara lehen hizkuntza bakar gisa jasotzen dutenak %76,2 direla kontuan hartuta. Gainera, euskara gaztelaniarekin batera jasotzen dutenak %16,2 dira.

Beraz, euskararen transmisioaren ehunekoa %90etik gorakoa izan dadin, bi bikotekideek ondo hitz egin behar dute euskaraz, eta gutxienez bietako baten lehen hizkuntzak euskara izan behar du.

<sup>9</sup> Gurasoen tipologia lantzean “euskara” eta “euskara eta gaztelania” lehen hizkuntzak elkartu dira eta, beraz, gurasoak aipatzean, euskara lehen hizkuntza izan ala ez izateaz bakarrik hitz egingo dugu.



Amaitzeko, ondoriozta daiteke euskarazko hizkuntza-gaitasun egokiak ez duela berez hizkuntza-transmisioa bermatzen. Biek euskaraz ondo hitz egin arren, batek ere ez badu euskara lehen hizkuntza gisa jaso, transmisioaren ehunekoa asko jaisten da. Izan ere, bi gurasoak euskaldun berriak direnean (B), lehen hizkuntza gisa euskara jasotzen duten seme-alaben ehunekoa (euskaraz soilik nahiz gaztelaniarekin batera) ia erdira jaisten da (%32,2k euskara eta %18,9k euskara eta gaztelania).

Transmisioa, halaber, nahiko bermatuta egon liteke gurasoetako batek euskaraz ondo hitz egin ez arren, besteak ondo hitz egin eta, gainera, lehen hizkuntza euskara duenean (A+ taldea). Bikote horien seme-alaben %80k baino gehiagok (%81,5) jasotzen duten lehen hizkuntza euskara soilik edo euskara eta gaztelania dira (%46,9k euskara soilik eta %34,6k gaztelaniarekin batera). A motako gurasoen kasuan, euskararen transmisioaren ehunekoa %32,9koa da (%11,6k euskara soilik eta %21,3k gaztelaniarekin batera).


Euskaraz ondo gurasoetako batek ere ez duenean hitz egiten (X), ez dugu aurkitu lehen hizkuntzaren arabera alderik. Beraz, gurasoen tipologiaren arabera balioak bat datoz hizkuntza-gaitasunaren balioekin.

5. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen tipologiaren arabera. EAE, 2001

Gurasoen tipologia	Seme-alabak lehen hizkuntzaren arabera						
	Guztira	Euskara		Euskara eta gaztelania		Gaztelania	
		Kop	(%)	Kop	(%)	Kop	(%)
D	59.547	55.883	93,9	2.812	4,7	852	1,4
B+	8.282	6.311	76,2	1.345	16,2	626	7,6
B	4.530	1.458	32,2	857	18,9	2.215	48,9
A+	41.517	19.461	46,9	14.364	34,6	7.692	18,5
A	20.925	2.432	11,6	4.460	21,3	14.033	67,1
X	327.792	5.467	1,7	11.666	3,5	310.659	94,8
<b>Guztira</b>	<b>462.593</b>	<b>91.012</b>	<b>19,7</b>	<b>35.504</b>	<b>7,7</b>	<b>336.077</b>	<b>72,7</b>

Iturria: EUSTAT

4. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, gurasoen tipologiaren arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

Orain arte ikusi dugunez, gurasoen tipologia faktore erabakigarria da hizkuntzaren transmisio-prozesuan. Baina gurasoen hizkuntza-gaitasuna eta lehen hizkuntza ez dira prozesu horretan eragina duten aldagai bakarrik. Hizkuntza-gaitasun maila desberdinak dituzten bikoteen kasuan, euskaraz ondo dakiena aita ala ama izateak eragina du transmisio-prozesuaren emaitzetan.

Oso zabaldua dago hizkuntzaren transmisio-prozesuan amaren pisua aitarena baino handiagoa den ideia, baina agerikoa badirudi ere, gutxitan aztertzen dira datuak, baieztapen hori berresteko. Informazio-gabezia hori arintzen saiatzeko, taula bat egin da hizkuntza-gaitasun maila desberdina duten bikotekideen seme-alaben lehen hizkuntza aztertzeko behar diren estatistika-datuekin (6. taula).

Gure ikerketarako hautatu ditugun seme-alaba guztietatik %75,3k hizkuntza-gaitasun bertsuko gurasoak dituzte. Ondorioz, seme-alaben laurdena gutxi gorabehera (%24,7) maila desberdineko hizkuntza-gaitasuna duten bikoteetatik datoz. Ehuneko txikia dirudien arren, seme-alaba horien multzoa 114.097 lagunekoa da, eta horrek erakusten digu zein garrantzitsua den.

Maila desberdineko hizkuntza-gaitasuna duten bikotekideek osatutako hiru bikote-mota daude, eta horietako bakoitzean hizkuntza-transmisioa nolakoa den aztertuko dugu. Gainera, bikote-mota bakoitzean euskaraz hitz egiten duena, edo ez duena, aita ala ama den kontuan hartuz, seme-alabenganako hizkuntza-transmisioan dauden aldeak ere zehazten saiatuko gara (5. irudia).

Lehen motako bikotekideen artean, batek euskaraz ondo hitz egiten du eta besteak nekez. Bikote mistoetako seme-alaben %27 dira<sup>10</sup> (30.788). Euskara lehen hizkuntza gisa transmititzen zaien seme-alaben ehunekoak nahiko handiak dira: %74,4 euskaraz ondo hitz egiten duena aita bada. Ondo hitz egiten duena ama bada, ordea, %81,6 da.

Bigarren motako bikotekideen artean, batek euskaraz ondo hitz egiten du eta besteak ez du batere hitz egiten. 31.654 lagunek osatzen dute, hau da, aztertzen ari garen seme-alaben %27,7. Euskararen transmisioa asko gutxitzen da, eta gainera talde honetan dago alderik handiena transmisioaren ehunekoetan, euskaraz hitz egiten duena aita ala ama den kontuan hartuta. Alde hori 10 puntukoa baino handiagoa da (11,6 puntu). Horrela, euskara jasotzen duten seme-alaben ehunekoak %45,3koa da euskaraz hitz egiten duena aita denean. Baina hitz egiten duena ama bada, euskara jasotzen duten seme-alaben ehunekoak %56,9koa da.

Azkenik, hirugarren mota hizkuntza-gaitasun txikiak duten bikote mistoen seme-alabek osatzen dute. Bikotekideetako batek euskara zailtasunez hitz egiten du eta beste kideak, berriz, ez du batere hitz egiten. Talde handiena da: seme-alaben %45 (51.655 lagun). Hizkuntza-transmisioaren ehunekoak nabarmen jaisten dira. Izan ere, lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben portzentajea %15,1koa da euskaraz zerbait hitz egiten duena aita bada, eta %19koa zerbait hitz egiten duena ama bada.


Laburbilduz, maila desberdineko hizkuntza-gaitasuna duten bikoteen artean, bikotekidearen hizkuntza-gaitasunak eragin zuzena izateaz gain, gaitasun-maila handiagoa aita ala ama izateak ere garrantzi handia du. Transmisioaren ehunekoak handiagoak dira, hizkuntza hobeto hitz egiten duena ama denean, eta alde hori bereziki deigarria da hizkuntzaren aldetik bikotekideen arteko aldea handiagoa denean, hau da, bata ondo hitz egin eta besteak batere hitz egiten ez duenean.

<sup>10</sup> Mistoak, hizkuntza-gaitasunaren ikuspegitik bakarrik

**6. taula. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, bikotekide bakoitzaren hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2001**

Euskaraz hitz egiten du		2-29 urte bitarteko seme-alabak		
Aitak	Amak	Guztira	Lehen hizkuntza	
			Euskara edo Biak	Gaztelania
Ondo	Nekez	<b>14.024</b>	74,4	25,6
Nekez	Ondo	<b>16.764</b>	81,6	18,4
Ondo	Batere ez	<b>12.145</b>	45,3	54,7
Batere ez	Ondo	<b>19.509</b>	56,9	43,1
Nekez	Batere ez	<b>20.193</b>	15,1	84,9
Batere ez	Nekez	<b>31.462</b>	19,0	81,0

Iturria: EUSTAT

**5. irudia. Bikote heterogeneoen 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, bikotekide bakoitzaren hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE, 2001 (%)**


Iturria: EUSTAT

## 2.7.- Seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen adinaren eta tipologiaren arabera

Seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen tipologiaren arabera aztertzean ikusi dugu gurasoen hizkuntza-gaitasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa dela lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben portzentajea. Gainera, seme-alaben lehen hizkuntza adinaren arabera aztertzean

egiaztatu dugunez, zenbat eta adin-talde gazteagoa izan, orduan eta handiagoa da lehen hizkuntza gutxienez euskara duten seme-alaben ehunekoa.

Ondoren bi aldagaiak, alegia gurasoen tipologia eta seme-alaben adina konbinatuz lortutako datuak aztertuko ditugu.

**a) Lehen hizkuntza euskara duten seme-alabak<sup>11</sup> (soilik edo gaztelaniarekin batera) adin-taldetan banatuta, guraso-motaren arabera.**

Adin-talde guztietan pisu gehien D motako gurasoak (biak euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak) dituzten seme-alabak dira. Halere, ehunekoa gutxitu egiten da seme-alaben adinak behera egin ahala<sup>12</sup> (7. taula).

B+ edo B motako bikoteetatik datozen eta lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben ehunekoaren bilakaera antzekoa da (B+: bata euskaldun zaharra edo jatorrizko elebiduna eta bestea euskaldun berria. B: bi gurasoak euskaldun berriak). Ehunekoak txikiak dira, seme-alaba guztien artean duten pisua %6koa baino ez baita, lehen kasuan, eta %2tik beherakoa, bigarrenean. Halere, bikote-mota horietatik datozen eta lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben kopurua etengabe eta pixkanaka handitzen ari da, adinean behera egin ahala.

A motako bikoteen seme-alaben artean ere joera antzekoa da eta, adinean behera egin ahala, handiagoa da haien pisua. Gainera, hazkunde-erritmo biziena duen taldea da.

A+ bikoteen seme-alaben ehunekoari dagokionez, adin-talde desberdinen artean ia ez dago alderik. Beraz, nahiko talde egonkorra dela esan daiteke. Gogoan izan behar dugu A zein A+ motako bikotekideen kasuan batek hitz egiten duela ondo euskaraz.

**7. taula. Lehen hizkuntza euskara edo biak dituzten 2-29 urte bitarteko seme-alabak adin-taldeka, gurasoen tipologiaren arabera. EAE, 2001 (%)**

Guraso-motak	2-29 urte bitarteko seme-alabak, lehen hizkuntza euskara dutenak, adin-taldeka (%)						
	Guztira	25 - 29	20 - 24	15 - 19	10 - 14	5 - 9	2 - 4
	<b>126.516</b>	<b>18.733</b>	<b>26.670</b>	<b>23.101</b>	<b>20.993</b>	<b>22.123</b>	<b>14.896</b>
<b>D</b>	<b>46,49</b>	61,89	54,82	47,41	41,62	36,60	31,52
<b>B+</b>	<b>6,05</b>	3,60	4,42	5,45	7,08	8,15	8,42
<b>B</b>	<b>1,83</b>	0,60	0,78	1,20	2,21	3,43	3,34
<b>A+</b>	<b>26,74</b>	24,52	26,78	28,02	27,99	27,02	25,26
<b>A</b>	<b>5,45</b>	1,85	2,73	4,22	6,30	8,87	10,45
<b>X</b>	<b>13,54</b>	7,53	10,47	13,70	14,80	15,94	21,02

Iturria: EUSTAT

**b) Lehen hizkuntza gaztelania duten seme-alabak adin-taldeka, guraso-motaren arabera.**

Lehenbizi azpimarratzekoa da bi gurasoek euskaraz ondo hitz egiten dutenean (D, B+ eta B motak), seme-alaba ia guztiek euskara dutela lehen hizkuntza. Lehen hizkuntza gaztelania duten seme-alaben ehunekoak, berriz, hondar-balioak ditu adin-talde guztietan (8. taula).

Gurasoetako bat euskaldun zaharra edo jatorrizko elebiduna bada eta besteak euskaraz ondo hitz egiten ez badu (A+), lehen hizkuntza gaztelania duten seme-alaben ehunekoa zertxobait

<sup>11</sup> Lehen hizkuntza euskara <> gaztelania esatean, euskararen barnean sartzen dira euskara soilik eta gaztelaniarekin batera.

<sup>12</sup> Hau hobeto ulertzeko esan behar dugu D motako gurasoek gainerako bikote-motak baino dezente zaharragoak direla eta bikote guzteenak, berriz, B eta A motatakoak direla.

handiagoa da, %2 ingurukoa, baina ehunekoa hori txikiagoa da adinean behera egin ahala. Euskaraz egiten duen bikotekide bakarra euskaldun berria bada (A), ehunekoak gora egiten du, eta gero eta handiagoa da, gainera, adinak behera egin ahala.

Azkenik, gurasoetako batek ere ez duenean euskaraz egiten, lehen hizkuntza gaztelania duten seme-alaben ehunekoa %85etik gorakoa da adin-talde guztietan; hala ere, A motako gurasoen igoerarekin bat datorren nolabaiteko beherakada ikus daiteke adin-talde gazteenetan.

**8. taula. Lehen hizkuntza gaztelania duten 2-29 urte bitarteko seme-alabak adin-taldeka, gurasoen tipologiaren arabera. EAE, 2001 (%)**

Guraso-mota	2-29 urte bitarteko seme-alabak, lehen hizkuntza gaztelania dutenak, adin-taldeka						
	Guztira	25 - 29	20 - 24	15 - 19	10 - 14	5 - 9	2 - 4
<b>Guztira</b>	<b>336.077</b>	<b>65.419</b>	<b>87.229</b>	<b>67.098</b>	<b>50.460</b>	<b>42.002</b>	<b>23.869</b>
<b>D</b>	<b>0,25</b>	0,35	0,30	0,23	0,19	0,16	0,19
<b>B+</b>	<b>0,19</b>	0,13	0,11	0,16	0,24	0,35	0,30
<b>B</b>	<b>0,66</b>	0,44	0,48	0,59	0,77	1,02	1,23
<b>A+</b>	<b>2,29</b>	3,16	2,34	1,95	1,90	2,01	1,98
<b>A</b>	<b>4,18</b>	2,23	2,72	3,65	5,32	7,31	8,39
<b>X</b>	<b>92,44</b>	93,70	94,05	93,41	91,58	89,16	87,91

Iturria: EUSTAT

**c) 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, guraso-motaren arabera eta adin-taldetan banatuta.**

Guraso-motaren araberako azterketa egitean ikusten da da lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben ehunekoak gora egiten duela adinean behera egin ahala (6. irudia).





Lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben ehunekoa oso handia denean, ez da igotzeko tarte handirik geratzen. Beraz, D eta B+ motako gurasoen seme-alaben ehunekoan igoera ez da oso handia.




Antzeko zerbait gertatzen da A+ motako gurasoen seme-alaben artean ere, baina kasu honetan lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben arteko aldea handiagoa da adin-talde bakoitzean: 25 eta 29 urte bitarteko seme-alaben %69tik hasi eta gazteenen taldeko ia %90eraino (%88,9).

Hazkunderik adierazgarrienak euskaraz egiten duen bikotekidea edo bikotekideak euskaldun berriak direnean daude. Horrelakoetan talde gazteenean lehen hizkuntza euskara duten seme-alaben ehunekoak bikoiztu egiten du 25-29 urtekoena. %62,9 vs %28,3 dira ehunekoak bi gurasoak euskaldun berriak direnean, eta %43,7 vs. %19,2, aldiz, bata euskaldun berria denean eta besteak ez duenean euskaraz ondo egiten.

Azkenik, gurasoetako batek ere ez duenean euskaraz ondo egiten (X mota), euskararen transmisioa adin-talde gazteenean baino ez da %10etik gorakoa (%13). Dena dela, azpimarratu behar da ehuneko hori 25 eta 29 urte bitarteko taldekoarena (%2,3) baino ia 7 aldiz handiagoa dela. Horrek hazkunde-eritmo handia islatzen du.

6. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza adin-taldeka, guraso-motaren arabera. EAE, 2001 (%)






Iturria: EUSTAT

### 3. Hizkuntza-bilakaera

Lehen hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren emaitzak erkatuko ditugu jarraian. 2 eta 29 urte bitarteko seme-alaben %27,4k lehen hizkuntza euskara<sup>13</sup> dute. Baina elebidunak erdia baino gehiago (%52,9) dira, eta %16,6k baino ez daki batera euskararik.

Lehen hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren artean dagoen alde adierazgarri horrek hizkuntzaren bilakaera garrantzitsua eta bizia dagoela erakusten du (1. irudia).

#### 1. irudia. Seme-alaben banaketa Hizkuntza Bilakaeraren Indizearen (BILA) arabera. EAE, 2001 (%)



Iturria: EUSTAT

<sup>13</sup> Euskara bakarrik %19,7 eta gaztelaniarekin batera %7,7.

Bilakaera hizkuntzaren irabazietan ematen ari da bereziki. Izan ere, galera-irabazien saldoa<sup>14</sup> irabazien aldekoa da argi eta garbi (118.515 pertsonakoa).


## 4. Euskararen erabilera

Azkenik, hizkuntza-gaitasun erlatiboak duen eragina azterturik, ea etxeko euskararen erabilerarekin bat datorren ikusi dugu. Era berean, seme-alabek etxean duten erabilera eta gurasoek duten erabileraren artean alderik dagoen egiaztatu dugu.

Jakina, seme-alaben erabilera aztertzerakoan, elebidunak baino ez ditugu kontuan hartu. Hiru talde egin dira erabileraren arabera: etxean nagusiki euskaraz egiten dutenak (aktiboak euskaraz), euskaraz gaztelaniaz beste egiten dutenak (aktiboak bietan) eta etxean nagusiki gaztelaniaz egiten dutenak (pasiboak euskaraz).

Ikus daitekeenez (5. irudia), elebidunen hizkuntza gaitasun erlatiboa (BILA) erabakiorra da hizkuntzaren erabileran. Izan ere, seme-alaba euskaldun zaharren %70 baino gehiago aktiboak dira euskaraz. Seme-alabak euskaldun berriak direnean, ordea, %1,2koa baino ez dira euskaraz aktiboak. Jarorritzko elebidunak diren seme-alaben artean nagusi dira euskaraz eta gaztelaniaz aktiboak direnak (%63,2).

### 5. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen talde bakoitzaren egitura, etxeko hizkuntzaren erabileraren arabera. EAE, 2001 (%)



bakoitzeko elebidun kopuruaren arabera proportzioa dute zirkuluek; ehunekoa gorri azaltzen da, parentesi artean.

Iturria: EUSTAT


Lehenago esan dugun bezala, hizkuntzaren gaitasun erlatiboak garrantzi handia dauka erabileran. Seme-alaben erabilera gurasoen tipologiaren arabera (7. irudia) aztertu dugu. Ikusten denez, guraso biak elebidunak direnean baino ez dira gehiengoak etxean nagusiki euskara erabiltzen duten seme-alabak. Guraso elebidun horien lehen hizkuntza euskara izan behar du gutxienez bietako batena (euskara soilik edo gaztelaniarekin batera). Guraso biak euskaldun berriak direnean, seme-alaben %40 baino gehiago pasiboak dira euskaraz. Gainerakoak nahiko antzera daude banatuta euskaraz aktiboak direnen eta euskaraz eta gaztelaniaz aktiboak direnen artean.

Gurasoetako bat baino ez denean elebidun, ehunekoak nahiko handiak dira, elebiduna den kidearen lehen hizkuntza euskara baldin bada. Bestela, euskaraz pasiboak diren seme-alabak (%61,9) dira nagusi.

<sup>14</sup> Galera guztiak, hau da, partzialak eta osoak kontuan hartuta, eta irabazi osoak bakarrik kontuan hartuta. Saldoa = irabazi osoak - (galera osoak + galera partzialak)



**7. irudia. 2-29 urte bitarteko seme-alaba elebidunen adin-taldekako banaketa, etxeko hizkuntzaren erabileraren arabera. EAE, 2001 (%)**




Oro har, zenbat eta gaitasun erlatibo handiagoa duten gurasoek handiagoa izan ohi da euskararen erabilera. Dena dela, ez da horrela beti gertatzen, gaitasunak ez dakar ezinbestean erabilera. Orain ikusiko dugunez, gurasoen erabilerak seme-alaben erabilera erabat baldintzatzen du. Gurasoetako bat euskaraz pasiboa baldin bada, euskaraz aktiboak diren seme-alaben ehunekoa jaitsi egiten da. Bi gurasoek hizkuntza-gaitasun desberdina baldin badute, euskaraz aktiboak diren seme-alaben jaitsiera handiagoa da, euskaraz pasiboa den aitak edo amak hizkuntza gaitasun erlatibo handiagoa duenean.

Seme-alaben euskararen erabileran ere eragin handia dauka euskaraz aktiboena aita ala ama izateak (8. irudia). Lehenago ikusi direnen antzeko joerarekin dator bat. Izan ere, euskara erabiltzeko egoerak berdintsuak direnean, ama bada euskara gehiago erabiltzen duena, seme-alabek euskara gehiago erabiliko dute, euskara gehiago erabiltzen duena aita bada baino

Azkenik, sareko hiztunen dentsitateak hizkuntzaren erabileran duen garrantziak maiz hitz egin arren, uste dugu familiari dagokionez, sarearen dentsitate handiagoa ala txikiagoa izateak eragin handia duela hizkuntzaren transmisio-prozesuan.

**8. irudia. Euskararen erabilera maila desberdineko guraso elebidunen seme-alaben erabilera etxean. EAE, 2001 (%)**





---

Eusko Jurlaritz - Kultura Saila  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
Donostia – San Sebastián, 1 · 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
T\_ 945-016923 · F\_ 945-018082  
[p-sagardoy@ej-gv.es](mailto:p-sagardoy@ej-gv.es) · <http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-17893/eu/>

Udaltop lan-topaketa batzuk izan nahi dute. Helburu hori lortzen laguntzeko, ponentziak eskura jarri dira topaketak egin aurretik, nahikoa denbora izan dezan teknikari bakoitzak irakurtzeko, lantzeko eta hizlariari egingo lizkiokeen galderak prestatzeko. Jardunaldietan bertan, jadanik irakurriak egongo diren hitzaldiei adina tarte eman nahi zaie elkarriketarako eta hausnarketarako tarteei.

Idatzi hemen zure galdera (ez ahaztu web gunetik bideratu behar duzula).

Galdera:

Azalpena: